



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2022

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

✉ kluster@soziolingvistika.eus

📍 www.soziolingvistika.eus

📘 slklusterra

🐦 @slklusterra



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eginez eta bertako zein nazioarteko soziolingvistika ezagutza kudeatuz egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, metodo zientifikoa baliatuz jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin elkarlanean. Soziolingvistika Klusterrak euskararen hitzun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolingvistikoa gizartean ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa du.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
(CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da.
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
URTEKO TXOSTENA 2022**



Osaketa grafikoa: **ZIRRIMARRA** ESTUDIO
GRAFIKOA

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 ANDOAIN

BAZKIDEAK

OHOREZKO BAZKIDEA:



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artez Euskara Zerbitzua
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebeta elkarte
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkarte
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Hezten Aisialdi Euskaltzalea
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E. Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarte (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Zumaiako Udala



Errenteriako Udala



ikastolenelkarte



euskaltzaleen topagunea



Zumaiako Udala

NORBANAKO BAZKIDEAK:
68 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2022 AURKIBIDEA

1	2022ari buruz	4 or.
2	Nortasuna eta egitura	5 or.
	2.1 Erabaki-guneak	5 or.
	2.2 Barne-proiektuak	7 or.
3	PROIEKTUAK	8 or.
	3.1 Berba-lapiko	9 or.
	3.2 Ahozkotasuna lantzeko prestakuntza eta aholkularitza	10 or.
	3.3 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa Euskal Herria	11 or.
	3.4 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa udalerrietan	12 or.
	3.5 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa UEMako udalerrietan eta Tolosaldekoetan.....	13 or.
	3.6 Hizkuntzen erabileraren neurketa UPV/EHUko fakultateetako esparru ez-formaletan.....	14 or.
	3.7 Hizkuntzen erabileraren neurketak eskola kirolean.....	14 or.
	3.8 Hizkuntzen erabileraren neurketak Ikastolen aldeko jaietan	15 or.
	3.9 Euskararen Adierazle Sistemaren jarraipen taldean parte hartzea.....	15 or.
	3.10 Getxoko datu soziolinguistikoen bilduma	16 or.
	3.11 Euskara Kirolkide	17 or.
	3.12 UEH Ikerketa: Udallerri Euskaldunetako Haurrak eta euskara	18 or.
	3.13 Hizkuntza-aktibazioa eta gazteak Goerrin.....	19 or.
	3.14 Euskara Legutioko moldera: hiztunak saretzen eta aktibatzen	20 or.
	3.15 Euskarabentura espedizioan ikerketa soziolinguistikoa	21 or.
	3.16 Euskararen diagnostikoa Erandioko haur eta gazteen aisialdian	21 or.
	3.17 Elgoibarko hizkuntza aniztasunaren mapa	22 or.
	3.18 Jendaurrean Erabili	23 or.
	3.19 Gipuzkoa Berdinago	24 or.
	3.20 Aldahitz ikerketa	25 or.
	3.21 Gipuzkoa Arigune.....	26 or.
	3.22 Hezkuntza soziolinguistikorako materialen bilduma.....	26 or.
	3.23 Alan R King katedra	27 or.
	3.24 Euskal Soziolinguistika Jardunaldia	28 or.
	3.25 Txillardegi-Hausnartu soziolinguistika sariak	29 or.
	3.26 Bat soziolinguistika aldizkaria.....	30 or.
	3.27 Soziolinguistika Albistaria.....	31 or.
4	Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak	32 or.
	4.1 Aurkezpenak eta formakuntza.....	32 or.
	4.2 Kongresuak, jardunaldiak eta mintegiak.....	32 or.
	4.3 Egitasmo berezietan parte hartzea	33 or.
	4.4 Harremanak.....	35 or.
5	Balantze ekonomikoaren laburpena.....	36 or.

1

2022ari buruz

Euskararen egoera ezagutzeko baliatzen ditugun adierazle soziolinguistikoen nagusiak 5 urtean behin eguneratzen direnez, 2021eko datu asko ezagutu ditugun urtea izan da 2022a. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMako udalerrietakoa, EAEko errodako datuen eguneratzea... Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak ere heltzear daude. Klusterrari dagokionez, kale-neurketak markatu du, neurri handi batean, ikergunearen jarduna. Bolumen handiko ikerketa da eta gizarte mailan ikusgarritasun eta eragin esanguratsua duena. Euskal Herriko neurketaz gain, harnaka udalerritako neurketa bereziak egin dira, Euskal Soziolinguistika Jardunaldia gaiari eskaini zaio, UEMari bere neurketen gaineko aholkularitza eman zaio...

Kaleetako Euskal Herri osoko batez besteko euskararen erabilera duela 5 urteko maila berean kokatzen dela jakin dugu. Soziolinguistika Klusterrak datu horren (eta beste askoren) testuingurua azaldu eta interpretazioa argitaratu zuen maiztzean. Ondoren hamaika izan dira irakurketak, erreakzioak eta balorazioak. Batek erabileraren jaitsiera espero zuela, besteak uste zuena baino altuagoa dela, harridura, egonezina... Sarritan bakoitzaren espektatibek, aurreiritziek, desioek eta ezagutzek baldintzatzen dute datuen aurreko jarrera eta irakurketa.

Praktika linguistikoak gure bizimoduan eragiten duten fenomeno globalen eraginpean daude: digitalizazioa, globalizazio ekonomiko eta kulturala, migrazioak, geopolitika eta klima larrialdia, besteak beste. Aldaketak barneratzen uzten ez duen abiaduran aldatzen ari da mundua eta horrek asko zailtzen du euskararen erabileran eragiten duten elementuak ulertzea.

Gertatzen dena ezagutzeko eta modu eraginkorrean esku hartzeko ikerketa zientifikoa eta berrikuntza dira tresna baliagarrienak. Eta zentzu horretan, euskararen soziolinguistikan hamaika ildo interesgarri eta emankor daude zabalik. 2022an gauzatu ditugun proiektuen garapen taldeetan, jardunaldietan, unibertsitateko bulegoetan, lehiaketa eta beketan topo egiten

dugu euskara biziberritzeko baliagarria izan daitekeen ezagutza zorrotza sortzen eta zabaltzen ari garenok. Eta euskal soziolinguistika ekosistema hau hazten, aberasten eta saretzen ari delakoan gaude.

Aspalditik erronka bezala identifikatua dugun nazioarteko harremanen esparruan zenbait urrats egin ditu Klusterrak aurtengoan. Beste hizkuntza gutxituetako ikergune, erakunde eta elkarteekin sartzean eta elkarlanean sakondu dugu; bai NPLD sarearen baitako ekimenetan parte hartuz eta baita bestelako zuzeneko harremanen bidez. Jardunaldi, topaketa eta kongresu akademikoetara euskal soziolinguistika ezagutzaren uzta eraman dugu, beste lurraldeetako biltzeaz gain. Aurten bereziki nabarmentzen dira munduko soziolinguistika bilgune garrantzitsuena den Sociolinguistics Symposiumean parte hartzea (Gante, 2022ko uztaila) eta Hizkuntza indigena eta gutxituen nazioarteko kongresuko (Katalunia, 2022ko iraila). Etxepare Institutua bidelagun hartuta ere aritu gara nazioarteko lan horretan. Montrealen parte hartu dugu Elbira Zipitria Katedraren irekiera ekitaldian hizkuntza-ohituren aldaketa prozesuaren gaineko mintzaldiarekin. Eta Imanol Larrea Klusterreko zuzendaria Galesen izan da 6 asteko egonaldian, bi hizkuntza komunitateetako ezagutzak eta proiektuak konektatzeko lanetan, Alan R. King katedraren baitan.

Lankidetzeta da Klusterrak sorreratik argi izan duen ardatzetako bat eta sendo jarraitzen dugu bide horretatik, benetan emankorra dela frogatuta. Euskararen lurralde osoan soziolinguistika ezagutza sortzen diharduten ikerlarien eta eremu aplikatuan esku hartzen dabilzanen arteko zubiak eraikiz, batetik. Eta euskararen biziberritzerako baliagarriak izan daitezkeen ikasgaiak ateratzeko, munduko beste txokoetako pertsona eta taldeekin elkarriketa iraunkorrean, bestetik.

Mertxe Mugika Balanzategi.
Soziolinguistika Klusterraren
lehendakaria



2

NORTASUNA ETA EGITURA

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak euskara biziberritzeko erreferentziatzko ikergune izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz eta berrikuntza bultzatuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** metodo zientifikoan oinarrituta zorroztasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.
- **Elkarlana:** osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizartearekiko ardura:** euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatu du bestelako gaietan ere gizarte berdinzaleago baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurralde guztietan jarduteko bokazioa du.

2.1 ERABAKI-GUNEA

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu. 2022eko martxoaren 17an Errenterian egin zen Soziolinguistika Klusterraren Ohiko Batzar Orokorra.





ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. 2022an zehar Zuzendaritza Batzordearen osieran zenbait aldaketa gertatu dira.

2022an ondorengoek osatu dute Zuzendaritza Batzordea:

- Anaida Agirre eta Ruben Beitia (Emun Kooperatiba Elkarte)
- Maite Asensio (Hezten)
- Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua)
- Asier Basurto eta Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterra)
- Maddi Etxebarria eta Helene Armentia (Elhuyar Aholkularitza) - *Diruzaina*
- Eneritz Garro (HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea)
- Ibon Manterola (Eusko Ikaskuntza)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) - *Idazkaria*
- Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea) - *Lehendakariordea*
- Mertxe Mugika (AEK) - *Lehendakaria*
- Miren Segurola (UEMA)
- Jon Zarate (Euskal Herriko Unibertsitatea)

BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2022an 13 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Manex Basabe Beitia - *Praktikaria eta bekaduna*
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Iker Etxarte Sunsundegi - *Praktikaria eta bekaduna*
- Beñat Garaio Mendizabal
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Paula Laita Pallares
- Imanol Larrea Mendizabal - *Zuzendaria*
- Gillen Martinez de la Hidalgo Malla - *Kolaboratzailea*
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain



2.2 BARNE-PROIEKTUAK

2020 urtean onartutako 2020-2023 egitasmo estrategikoaren baitan, hainbat proiektu estrategiko garatzea aurreikusi zen. 2022an ondorengoei heldu zaie:

SLK+ EGITASMOA

Soziolinguistika Klusterra erakunde singular/bakar egiten duena identifikatzeko prozesua da. Euskararen biziberritzean jokatzeko duen funtzioaz eta euskal gizarteko erakunde-sisteman duen tokiaz hausnarketa partekatuan oinarritzen da. Hausnarketa horretatik epe ertainera euskal soziolinguistika ikerketan eta erakundearen ezaugarrietan, harremanetan eta norabidean egin beharreko egokitzapenak definitzea litza-teke xedea.

BAZKIDETZA PLANA

Bazkide izaeraren gaineko hausnarketa prozesutik abiatuta, erakundearen inguruko interes taldeak identifikatu eta bakoitzaren tokia eta parte hartzea zehazteko prozesua da, soziolinguistika esparruko sinergiak aprobetxatu eta optimizatzeko bidean urratsak eginez.

KOMUNIKAZIO PLANA

Proiektuen komunikazio-lana sistematizatu eta hobetzea bilatzen da, besteak beste, argitalpen irizpideak berrikusiz. Nazioarteko ikergune eta eragileekin elkarrekintza areagotzeko bideak zabaldu nahi dira eta Euskal Herri osoan presentzia eta eragina bermatzeko bideak jarri.

NAZIOARTEKO ILDOA

Nazioarteko proiektuetan parte hartzeko oinarriak eraiki eta sendotzea da egiteko nagusia: deialdien zaintza; harreman sareak sendotzea (bereziki NPL-Dren baitakoak eta ikerguneak); bulego teknikoaren gaitasun espezifikoa lantzea eta ikerlari profilak indartzea; nazioartera bideratutako argitalpenak zein bestelako komunikazio euskarriak prestatzea; eta nazioarteko presentzia handitzea gure lanaren aurkezpenak eginez.

Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten egitasmoak

3

PROIEKTUAK

01. Berba-lapiko	9 or.
02. Ahozkotasuna lantzeko prestakuntza eta aholkularitza	10 or.
03. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa Euskal Herria.....	11 or.
04. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa udalerrietan	12 or.
05. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa UEMAko udalerrietan eta Tolosaldekoetan.....	13 or.
06. Hizkuntzen erabileraren neurketa UPV/EHUko fakultateetako esparru ez-formaletan	14 or.
07. Hizkuntzen erabileraren neurketak eskola kirolean	14 or.
08. Hizkuntzen erabileraren neurketak Ikastolen aldeko jaietan.....	15 or.
09. Euskararen Adierazle Sistemaren jarraipen taldean parte hartzea	15 or.
10. Getxoko datu soziolinguistikoen bilduma	16 or.
11. Euskara Kirolkide	17 or.
12. UEH Ikerketa: Udallerri Euskaldunetako Haurrak eta euskara	18 or.
13. Hizkuntza-aktibazioa eta gazteak Goierriin	19 or.
14. Euskara Legutioko moldera: hitzunak saretzen eta aktibatzen.....	20 or.
15. Euskarabentura espedizioan ikerketa soziolinguistikoa.....	21 or.
16. Euskararen diagnostikoa Erandioko haur eta gazteen aisialdian	21 or.
17. Elgoibarko hizkuntza aniztasunaren mapa	22 or.
18. Jendaurrean Erabili.....	23 or.
19. Gipuzkoa Berdinago.....	24 or.
20. Aldahitz ikerketa.....	25 or.
21. Gipuzkoa Arigune.....	26 or.
22. Hezkuntza soziolinguistikorako materialen bilduma	26 or.
23. Alan R King katedra	27 or.
24. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia.....	28 or.
25. Txillardeggi-Hausnartu soziolinguistika sariak.....	29 or.
26. Bat soziolinguistika aldizkaria	30 or.
27. Soziolinguistika Albistaria	31 or.

3.1

*Testuinguru
erdaldunetako ikasleek
euskarazko ahozko
hizkuntza-gaitasunean
aurrera egiteko garapen
metodologikoa.*

Zuzendariak | Agurtzane
Azpeitia eta Idurre Alonso
(MU-HUHEZI)

Bulegoko langileak | Olatz
Bengoetxea, Paula Laita, Isabel
Godinez eta Beñat Garaio

Partaideak | Rontegi
eskola, Muskizko ikastola,
Berritzeguneetako Normalizazio
aholkulariak, EAEko beste 17
ikastetxe, ELEBILAB (UPV/EHU)

Berba-lapiko

Berba-lapiko ikerketa-proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunei erreparatuko diena. 2017-2018 ikasturtean jarri zen abian bi ikastetxetan, Lehen Hezkuntzako etapan; eta prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu da euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, baina, batik bat metodologia berriztatzen eta ikasleen garapen adierazleak identifikatzen.

2022 urteari dagokionez, batetik, **hasiera-hasieratik martxan dagoen ikastetxeetan (Rontegi Eskola eta Muskizko ikastola)** ikerketari amaiera eman zaio LH1.zikloan. Aurrerantzean, ikastetxe horietan Berba-lapiko egitasmoa txertatuta geratuko da.

Bestetik, bi ikastetxe horietan lehenago probatu eta garatutako metodologiak EAEn antzeko testuinguruan dauden **17 ikastetxetara** hedatu dira. Horretarako, Hezkuntza saileko Hizkuntza Normalizatorako Aholkulariekin elkarlanean eskolei prestakuntza eta gertuko jarraipena eskaini zaie. Proiektua pausoz pauso hasi da txertatzen eskola berrietan, aurtan Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan.

Hirugarrenik, 17 ikastetxe horietako batzuk ikerketa berri batean parte hartu dute: **Berba-lapiko 2.0**. Irakasleengan eta ikasleengan proiektua inplementatu ondorengo **inpaktua eta aldaketak neurtzeko** helburuz. Ikerketa bukatuta dago eta, 2023an, parte hartu duten ikastetxeei emaitzen berri emango zaie.



➔ www.soziolinguistika.eus/berba-lapiko

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza saila



3.2

Testuinguru soziolinguistiko eta helburu ezberdinen arabera ikastaro eta mintegiak.

Bulegoko langileak | Olatz Bengoetxea eta Isabel Godinez

Partaideak | Ikastetxeak, Berritzeguneak, euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, aisialdiko begiraleak

Ahokotasuna lantzeko prestakuntza eta aholkularitza

Ahokotasunaren inguruan garatu diren egitasmoak eta martxan dauden ikerketa-proiektuak dira prestakuntza honen abiapuntua.

IRALE programaren bidez Ahozko hizkuntzaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altzotik (I7) formazioa eskaini da: ikastetxe bakoitzeko testuinguru soziolinguistikoaren behatokitik aztertuta, ahozko hizkuntza lantzeko metodologietan sakontzea du helburu, besteak beste.

Beste bide batzuetatik ere landu da prestakuntza eta aholkularitza: Elea-niztasunerantz programaren baitako prestakuntzak, edo aparteko eskaera egokituak (mintegi laburrak, ikastetxeetako ahozko hizkuntzaren mapa aztertzeko saioak...).

Sustatzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila
- Ikastetxeak



3.3

Kalean elkarrizketa informalak behatuz hizkuntzen erabilera kuantifikatzen duen ikerketa.

Zuzendaria | Olatz Altuna
Bulegoko langileak | Maialen Iñarra Arregi, Isabel Godinez, Asier Basurto eta Belen Uranga
Batzorde zientifikoa | Eneko Gorri, Iñaki Iurrebaso, Iñaki Martínez de Luna, Paula Kasares, Xabier Isasi
Beste partaideak | Oihana Santolaria, Koldo Telleria eta Irati Otamendi (UPV/EHU), Nestor Urrestaratzu (Datu Tailerra), IZT Informatika Zerbitzu Integrala, Eñaut Urrestaratzu, Arrate Arbaiza, Lorea Zulaika Arriaga eta Oianko Garde

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa Euskal Herria

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren Euskal Herri mailako lehen eta bigarren edizioak Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) bideratu zituen 1989an eta 1993an. Geroztik, beste zazpi aldiz errepikatu du Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak): 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021.

Hiru helburu nagusi izan ditu 2021eko edizioak:

1. Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz, datu enpirikoak eskuratzea.
2. Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.
3. Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea, euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitze eta hizkuntza-plangintza diseinatzeko balio dezan.

Neurketan, hizkuntzen ahozko erabilerari buruzko datu enpirikoak jaso dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa, espazio irekietan solasean ari ziren hiztunen jarduna behatuz, alegia. Emaitzek Euskal Herriko kaleetako euskararen erabilera kuantifikatzen dute.

145 udalerritan jaso dira datuak. Euskal Herriko lurralde guztietako udalerriak, gune soziolinguistiko guztietakoak eta biztanle-kopuru desberdinetakoak. Orotara, Euskal Herri osoan, 603.497 solaskide behatu dira 215.396 elkarrizketatan, emaitzen adierazgarritasun estatistiko egokia bermatuz.

2022an datuak aztertu eta interpretatu dira, formatu desberdineko emaitza-txostenak eta euskarri komunikatiboak osatu dira eta ikerketaren emaitzak gizartearen sektore eta gune ahalik eta gehienetara iritsi zitezten sozializazio lana egin da.



➔ www.soziolinguistika.eus/kaleneurketa2021

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua
- Arabako Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Kutxa Fundazioa
- 46 udal eta mankomunitate

3.4

Udalerrri bakoitzeko kaleko hizkuntzen erabilera sakonean eta xehetasunean aztertzeo ikerketak.

Zuzendaria | Olatz Altuna
Bulegoko langileak | Belen Uranga, Maialen Iñarra, Gillen Martinez de la Hidalga, Iker Etxarte, Manex Basabe

Babesle-laguntzaileak:

Bilboko Udala | Vitoria-Gasteizko Udala | Iruñeko Udala | Donostiako Udala | Agoizko Udala | Aittu Euskara Elkartea | Amasa-Villabonako Udala | Andoaingo Udala | Anoetako Udala | Antzuolako Udala | Aretxabaletako Udala | Arrasateko Udala | Astigarragako Udala | Azpeitiako Udala | Bermeoko Udala | Debako Udala | Eibarreko Udala-Akebai | Erandioko Udala | Ermuako Udala | Errenteriako Udala | Eskoriatzako Udala | Galdakaoko Udala | Gernika-Lumoko Udala | Getxoko Udala | Gorbeialdeako Kuadrilla | Hernaniko Udala | Hondarribiako Udala | Laudioko Udala | Legazpiko Udala | Lekunberriko Udala | Lezoko Udala | Oiartzungo Udala | Oñatiko Udala | Ordiziako Udala | Pasaiaiko Udala | Sakanako Mankomunitatea | Txorierriko Mankomunitatea | Urduñako Udala | Urrietako Udala | Urretxuko Udala | Usurbilgo Udala | Zaldibarko Udala | Zarauzko Udala | Zestoako Udala | Zumaiako Udala | Zumarragako Udala

Hizkuntzen erabilerearen kaleneurketa udalerrietan

Euskal Herrian egiten den bezala, behaketa bidezko metodologiaz herri zehatz bateko kaleetan gertatzen diren elkarrizketen hizkuntza erabilera aztertzen da. Horretarako herri horretarako diseinu espezifikoak osatzen da, ibilbide eta ordutegi interesgarrienak hautatuz neurketa egiteko.

Berdin hitz egiten dute euskaraz gizonezkoek eta emakumezkoek? Haurrek eta helduek edo gazteek? Erabilera berdina izan ohi da parez pareko harremanetan edo adin desberdinekoekin hitz egiterakoan?

2021an neurketa Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Iruñean egiteaz gain, beste 43 udalerritan ere egin zen. Horietako hirutan, gainera, hitanoaren erabilera ere behatu zen (Azpeitian, Usurbilen eta Villabonan). Gainera, hiru eskualdetan neurketa bereziak egin ziren (Gorbeialdean, Sakanan eta Txorierrin). 2021ean jasotako datuen gainean emaitzen interpretazio soziolinguistikoa eskaini da eta udalerrri horietako gehienetan emaitzen aurkezpen publikoa egin da 2022an. Horrez gain 2022an bertan Azkoitian eta Leioan egin dira neurketak.

➔ www.soziolinguistika.eus/kaleneurketak



3.5

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko herrietan eta Tolosaldeko herrietan egindako neurketa bereziak.

Bulegoko langileak | Olatz Altuna eta Belen Uranga

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa UEMAko udalerrietan eta Tolosaldekoetan

2017an egin zen lehen aldiz UEMAko azterketa, kide diren herri gehienek kale-erabilera neurtuta. 2021ean, orotara, 93 herritan neurtu da kaleko erabilera: UEMAko 87 eta Tolosaldeko beste sei.

Soziolinguistika Klusterrak neurketen diseinuaren, neurtzaileen formazioaren eta emaitzen azterketa zein interpretazioaren ardura izan du. UEMA Arduratu da landa-lanaz.

Udalerrri tipologiaren araberako erabilera datuek agerian utzi dute eremu soziolinguistikoak zenbateko eragina duen euskararen erabileran.



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerrriak-eta-tosalaldea/>

Sustatzailea:
- UEMA



3.6

Unibertsitateko fakultateetan behaketa bidezko hizkuntzen erabileraren neurketak.

Bulegoko langilea | Belen Uranga

Sustatzailea:

- UPV/EHU

Babesle-laguntzailea:

- Donostiako Udala



Universidad del País Vasco



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Hizkuntzen erabileraren neurketa UPV/EHUko fakultateetako esparru ez-formaletan

2017-2018 ikasturtean, UPV/EHUko Unibertsitateko Euskararen eta Eten-gabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak zenbait Fakultateetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian. Orduetik gaur egun arte, 24 fakultateetako hizkuntza-erabilerak behatu dira, "Aktibatu" egitasmoaren baitan. Hala, EHUko fakultate guztietako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabileraren lehen datuak eskura daude.

Datu horiek interpretatu eta diagnosi partekatua osatzeko, mintegiak egin dira UPV/EHUren hiru campusetan; bilakaera aztertzeke eta erabilerari horietan eragiten duten aldagaiak identifikatzeko. Mintegi horietan, gainera, aurrerantzean aplikatu daitezkeen esku-hartzeak ere proposatu dira.

Proposamen horien artean daude ikerketa hobetzeko berrikuntzak eta euskararen erabilera aktibatzeke ekimenak, betiere, Euskal Herriko Unibertsitateak euskararen biziberritzean duen funtzio soziala esplizitatuz.

➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-neurketak-euskal-herriko-unibertsitatean/>

3.7

Gipuzkoan haurren kirol entrenamenduetan eta partiduetan hizkuntzen erabileraren behaketak.

Bulegoko langilea | Olatz Altuna

Hizkuntzen erabileraren neurketak eskola kirolean

Azkoitian, Legazpin, Orion, Urretxu-Zumarragan eta Zarautzen LH4ko haurren kirol 20 klub baino gehiagoren entrenamenduetan eta partiduetan hizkuntzen erabileraren neurketak egin dira. Kirol-jarduera ezberdinak behatu dira, esate baterako, futbola eta saskibaloia. Kirol-taldearen erabilera orokorraz gain, solaskidearen rola eta generoa ere aztertu da.

Proiektuaren helburua da eskola-kirolean hizkuntza-erabilerari buruzko datuak jasotzea eta aztertzea, diagnosi ahalik eta zehatzena egitea, eta horren arabera esku-hartzeak diseinatzea eta garatzea. Esku hartze horien azken xedea euskararen erabilera areagotzea da, eta interbentzio horiek Elhuyarren eskutik bideratuko dira.

➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-neurketak-ikastetxeetan-eta-kirol-taldeetan/>

Sustatzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.8

Hizkuntzen erabileraren neurketak Kilometroak eta Nafarroa Oinez.

Bulegoko langilea | Olatz Altuna

Hizkuntzen erabileraren neurketak Ikastolen aldeko jaietan

Ikastolen aldeko jai handietan euskararen erabilera zenbatekoa den pertzepziotik harago, oinarri zientifikodun ikerketa baliatu nahi izan da. 2022an Nafarroa Oinez eta Kilometroak jaietan erabileraren neurketak egin dira, Kale Neurketaren metodologia egokituta. Jai-egun horien une eta gune ezberdinetan behaketak egin dira eta hitzunen adinaren eta sexuaren arabera kalkulatu dira erabilera-indizeak. Ikerketak ekitaldi garrantzitsu hauen erabileraren argazki interesgarria bistaratu du.

Sustatzailea:
- Ikastolen Elkartea



3.9

Euskararen eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri ematen adierazle-multzoa.

Bulegoko langilea | Olatz Altuna

Euskararen Adierazle Sistemaren jarraipen taldean parte hartzea

Gizartearen esparru desberdinetan euskarak zein zabalkunde eta zein bilakaera duen erakusten du EASen webguneak (<https://www.euskadi.eus/eas/>). Ezaugarriak honakoak dira: titulartasun publikokoa; zerbitzu publiko iraunkorraren bokazioz eraikia; kontsentsu politiko, sozial eta tekniko ahalik eta zabalenean oinarritua; aldiro-aldiro argitaratuko duen informazioa erraz ulertzeko modukoa izango da; batez ere, kuantitatiboa; euskararen lurraldeak izango ditu jomuga, ahaztu gabe egungo mundu globalizatuak muga geografikoak askotan gaintzen dituela; horrez gain, herri-administrazioaren maila ezberdinak aintzat hartuko ditu (lurraldeak, eskualdeak, udalerrriak...).

Proiektuak ibilbide luzea eta oparoa izan du 2013tik hona. 2022an, besteak beste, ahozko erabilerari buruzko adierazle batzuk eguneratu dira eta hedabideen zein unibertsitateen arloko adierazleak berrikusi dira. Gaur egun, 50 adierazle baino gehiagoren informazioa eskura daiteke webgunean.

- <https://www.euskadi.eus/eas>
- <https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema>
- <https://www.mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.html>

Sustatzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea institutua
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Arabako Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.10

Udalerriko euskararen diagnostikoa egitea da xedea, egoera soziolinguistikoan eragin dezaketen adierazleak kontuan hartuz.

Bulegoko langilea | Beñat

Garaio

Partaideak |

Ane Aibar, Elhuyar, Naia

Intxaurtieta, Irene Ezkurra

(Bizarra lepoan)

Getxoko datu soziolinguistikoaren bilduma

2010en argitaratu zen “Euskarak Getxon badu etorkizunik III” txostenean hainbat datu eskaintzen ziren, euskararen egoera azaltzeko. Hizkuntza gaitasuna, hezkuntza ereduen bilakaera eta helduen euskalduntze-alfabetatzea bezalako aztergaiez gain, Soziolinguistika Klusterrak ondorengoak ikertu zituen: hedabideen kontsumoa, euskararen erabilera, txioen azterketa, hizkuntza-paisaia, kultur-agenda eta elkarte eta kirol-taldeen lotura euskararekin.

Txosten hori osatzeko, aztergai batzuen kasuan, lehenagoko urteetako emaitzekin osatu ahal izan dira eta horrekin udalerriko egoeraren bilakaera aztertu da.

Sustatzailea:

- Getxoko Udala



3.11

Euskararentzako kirol-aisialdi babestua zertan datzan zehaztu eta kirol klubetan eragiteko proposamenak.

Zuzendaria | Jone Miren Hernandez (UPV/EHU-AFIT)

Bulegoko langilea | Maialen Iñarra

Garapen-taldea |

- Nekane Jauregi eta Beñat Egues (GFA-HBZ)
- Jon Aizpurua eta Danel Lauzirika (EJ-HPS)
- Oihana Zunzunegi (GFA – Kirol Zuz.)
- Joseba Angulo (EJ – Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuz.)
- Estiñe Astorkia (Artez)
- Aritz Olagoi (Kirolean Euskaraz)

Ikerlariak |

- Jaime Altuna (UPV/EHU-AFIT)
- Uxue Ruiz
- Edurne Urrestarazu

Euskara Kirolkide

Euskara Kirolkide proiektuak 2020. urtean ekin zion bere ibilbideari, honako helburu nagusi honekin: kirol kluba euskararen babesgune gisa definitzea. Hau da, euskararentzako kirol aisialdi babestua zertan datzan zehaztu nahi da, kirol klubetan ikuspegitik. Gainera, proposamen praktikoak irudikatu nahi dira kirol klubentzat, babesgune izateko bide hori egin dezaten.

2021ean, kirol klubetako zuzendaritza-taldekin, langileen nahiz boluntarioen egunerokoan murgildu eta beren hizkuntza-ideologiak, -praktikak eta -bizipenak ezagutu ziren. Egindakoa eta klubetan ikusitakoa, jasotakoa eta bizitutakoa partekatzeko webgunehau zabaldu zen: www.euskarakirolkide.eus. Bertan aurki daitezke audioak, bideoak, argazkiak, marrazkiak, gidoiak, artikuluko zientifikoak, txostenak...

Hain justu, eduki horretan oinarrituta, kirol klubek euskararen babesgune izateko urratsak eman ditzaten, klubetako arduradunei eta egiturari begirako tresna praktiko baten prototipoa osatu da. Horren kontrastea egin da kirol munduko teknikariek nahiz aholkulariek.

Ekarpen horiek barnebidu dira tresnaren prototipoan, eta horren pilotaje-prozesua diseinatu da 2022an. 2023. urtean, tresna praktikoaren aplikazioa bideratuko da hainbat kirol klubekin batera.



- www.euskarakirolkide.eus
- www.soziolinguistika.eus/euskarakirolkide

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.12

Herri euskaldunetako haurren hizkuntza-praktikak eta bizipenak ezagutzeko eta esku-hartze irizpideak proposatzeko proiektua.

UEH Ikerketa: Udalerri Euskaldunetako Haurrak eta euskara

UEMAko udalerrietako eskoletako hizkuntzen erabileraren neurketaren osagarri-jarraipena da proiektua. Hego Euskal Herriko 7 herritako 150 haur eta 50 heldu inguruk parte hartu dute. Ezaugarri desberdineko udalerrri eta eskolak hautatu dira azterketarako. 2022an landa-lana amaitu da, jasotako materialak aztertu dira eta emaitzen txostena kaleratu da.

Herrien azterketatik abiatuta, ikerketaren emaitzak zabaltzeko eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketari begirako zenbait mezu zabaltzeko dibulgazioko ikus-entzunezko laburrak prestatu dira.

Zuzendaria | Eider Saragüeta
(UPV/EHU-DREAM)

Bulegoko langilea | Beñat
Garaio

Garapen Taldea |

- Mariate Bizkarra (UPV/EHU-IkHezi)
- Iñaki Eizmendi (EBETE)
- Garikoitz Goikoetxea (UEMA)
- Jone Goirigolzarri (Deustuko unibertsitatea)
- Karmele Perez (MU-HUHEZI)



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/ueh-ikerketa/>

Sustatzaileak:

- Soziolinguistika Klusterra
- UEMA

Babesle-laguntzaileak:

- Nafarroako Gobernua
- Gipuzkoako Foru Aldundia



Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra



3.13

Beasaingo gazteen hizkuntza-aktibazioa sustatzeko proiektua.

Zuzendaria | Zesar Martinez (UPV/EHU - Parte Hartuz)

Bulegoko langilea | Maialen Iñarra

Partaideak |

- Miren Uriarte (UPV/EHU - Parte Hartuz)
- Patxi Saez (Aittu!)
- Beasaingo hainbat gazte
- Goierriko hainbat euskaltzale

Hizkuntza-aktibazioa eta gazteak Goierriin

2021-2022 epealdian, hizkuntza-aktibazioan gazteen paperaz gogoetatu da Goierri eskualdean, modu parte-hartzailean eta, bereziki, belaunaldi gazteenei erreparatuz.

Hiru helburu zehatzekin egin da lan:

- 1) Beasaingo Aittu! zein AittuGazte! ekimenen sorkuntza aztertzea eta hizkuntza-aktibazioaren arloan lorturiko aurrerapausoak modu parte-hartzailean gogoetatzea.
- 2) Ekimen horien protagonistak ikerketa-prozesuaren parte eginez, orain arte eman dituzten urratsak gogoetatzea eta aurrera begirako indarrak eta asmoak sendotzea.
- 3) Beasaingo Aittu!ren esperientzia aztertuz eta eztabaidatuz, Goierriko beste herrietan kontuan hartzeko moduko gakoak eta orientabideak zehaztea eta (herri horietako eragileekin) sustatzea.

Prozesua 50 herritar ingururekin batera burutu da (gazte nahiz heldu). Horretarako, teknika desberdinak erabili dira: tailer formatuko lan-saioak, elkarrizketak, hiru pertsonako solasaldiak, gazte-espazioetara bisitak...

Hala, emaitza gisa, euskara eta gazteen ekimenari buruzko hainbat ideia-gako identifikatu dira, eta Goierriko hainbat herritarren eta eragileren artean hedatu dira. Horrez gain, euskarari lotutako gaiak lantzeko interesa duten gazte batzuk harremanetan jarri dira Beasainen.



➔ www.soziolinguistika.eus/aktibazioa

Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Beasaingo Udala

3.14

Gazteen eta guraso izan berrien hizkuntza praktikak, ideologiak eta bizipenak aztertzeko ikerketa.

Zuzendaria | Jone Miren Hernandez (UPV/EHU-AFIT)
Bulegoko langilea | Olatz Altuna
Ikerlaria | Josu Ozaita

Euskara Legutioko moldera: hiztunak saretzen eta aktibatzen

Hiru helburu izan ditu ikerketa kualitatibo honek: hizkuntza praktikak, ideologiak eta bizipenak aztertzea; egun indarrean dauden hizkuntza-sareak ezagutzea; eta, etorkizuneko esku-hartzeetarako gako baliagarriak lortzea.

Ikerketarako informazioa eskuratzeko behaketak eta elkarrizketak egin dira, bakarka zein taldeka. Horrez gain, euskaraz funtzionatu nahi duten harreman-sareak sendotzeko buztzingintza tailerra antolatu da, Legutioko Ollerias Buztingintza Museoarekin lankidetzan.



➤ <https://soziolinguiстика.eus/eu/argitalpenak/euskara-legutioko-moldera/>

Sustatzailea:
- Legutioko Udala

3.15

Espedizioko parte hartzaileen hizkuntza praktketan, gaitasunetan eta motibazioetan duen eragina neurtzeko aholkularitza metodologikoa eta teknikoa.

Bulegoko langileak | Olatz Altuna eta Imanol Larrea
Partaidea | Izaro Arruti (Euskarabentura)

Euskarabentura espedizioan ikerketa soziolinguistikoa

2021eko Euskarabentura espedizioan parte hartzaileen hizkuntza erabile-ra behatzeaz gain, euren hizkuntza-ohiturak, autokonfiantza eta hizkuntza-ideologiak aztertzeko ikerketa prozesuan aholkularitza eta laguntza teknikoa eman du Soziolinguistika Klusterrak. 2022ko espedizioan ikerketaren bigarren edizioa diseinatzerakoan ere ekarpena egin du.

➔ <https://euskarabentura.eus/>

3.16

Haur eta gazteek euskarazko aisialdiaz gozatzeko dituzten aukeren azterketa.

Bulegoko langilea | Beñat Garaio
Partaidea | Ane Aibar

Euskararen diagnostikoa Erandioko haur eta gazteen aisialdian

Hiru izan dira ikertutako aztergai nagusiak: a) Erandioko haur eta gazteen aisialdiko hizkuntza egoera; b) erandioztarren aisialdi aukeraketaren atzean dauden arrazoiak eta c) aisialdia erabat euskalduntzeko jorratu beharreko lan-ildoak.

2022ko apirilean bukatu zen landa-lana eta ekainean amaitu zen proiektua. Emaitzen txostena aisialdirako udal-eskaintza antolatzeke oinarri gisa baliatuko da.

3.17

Herriko hizkuntza-aniztasuna ezagutzeko, biztanleriaren jatorrian oinarritutako ikerketa.

Zuzendaria | Xabier Aierdi
Bulegoko langilea | Belen Uranga

Elgoibarko hizkuntza aniztasunaren mapa

Herritarren jatorriaren arabera aztertu da zein izan daitezkeen, bertan hitz egiten diren jatorri atzerritarreko hizkuntzak. Ikerketak baieztatu du Elgoibarren, Gipuzkoako eta EAeko joerak jarraitzen direla. Udalerrri mailako azterketak herriko auzoetako ezaugarrien arabera errealitatea ezagutzen laguntzen du, bertako biztanleriaren beharrak edota nahiak hurbilagotik identifikatzeko, eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa ego-kiagoa sustatzeko.



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/elgoibarko-hizkuntza-aniztasunaren-mapa/>

Sustatzailea:
- Elgoibarko Udala

3.18

Bere praktikak eta esperientziak partekatuz komunikazio publiko eraginkorragoa egiteko elkarlanean diharduen erakundeen praktika-komunitatea da.

Ikerketa-taldea |

- J. Inazio Marko
- Kontxesi Berrio-Otxoa
- Eduardo Apodaka
- Irati Agirreazkuenaga

Bulegoko langilea | Asier Basurto

Partaideak | AEK, Donostia Zinemaldia, Donostiako Udala, ELA, Elhuyar, Emun, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Legebiltzarra, Getxoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Guggenheim Bilbao Museoa, LAB, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Mutualia, Sakanako Mankomunitatea

Jendaurrean Erabili

Urtearen lehen zatia proiektuaren ikerketa taldea berritzeari eta ikerketa-ildo berria diseinatzeari eskaini zaio. Uda ostean martxan jarri dira biak.

2015 eta 2022 urteen artean proiektuak egindako ibilbidea ebaluazio errealistaren ereduaren arabera aztertzeko prozesua abiatu da. Ibilbide horretan praktika komunitateko erakundeetan aktibatu diren mekanismoak eta hauekin lotutako efektuak identifikatzeko prozesua da. Asmoa da azterketa horretatik ikasgaiak ateratzen eta sistematizazio sortzailearen bidez komunikazio publikoan euskararen tokia handitzeko baliagarri izango den gida dinamiko batean jasotzea.



➔ www.jendaurrean.eus

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

3.19

Komunikazio publikoa hizkuntza berdintasunerantz urratsak emateko elkarrekin diharduten erakundeen taldea.

Bulegoko langilea | Asier Basurto

Koordinazio Taldea |

Garbiñe Mendizabal, Elene Arrazola, Nekane Jauregi, Iñaki Arruti (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Erakunde kideak |

- Adegí
- Basque Culinary Center
- Bera-bera eskubaloia
- CAF
- Deustuko Unibertsitatea
- Donostiako Udala
- DYA
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Fagor taldea
- Gipuzkoa Basket
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Kaiku
- Kutxa Fundazioa
- Kutxabank
- Laboral Kutxa
- Mondragon Korporazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- Mutuaia
- Real Sociedad

Gipuzkoa Berdinago


2016tik aurrera Gipuzkoa Berdinago adierazpena prestatu eta adostu zuten kideek lehendabizi, eta bertan jasotako konpromisoak betetze alde-rra urratsak eman dituzte ordutik. 2022an bi urtera begirako helburuak finkatu ditu erakunde bakoitzak, komunikazio publikoan euskarari toki handiago emateko.

Gipuzkoa Berdinago Buletinaren bi zenbaki gehiago zabaldu dira, Gipuzkoa Berdinago proiektuari lotutako albisteak, Gipuzkoako entitateek komunikazio publikoan hizkuntza berdintasunerantz emandako urratsen ingurukoak eta nazioartean komunikazio publikoaren esparruko berri-kuntza eta praktika onen ingurukoak bilduta

Urtearen azken zatia Gipuzkoa Berdinago Foroa antolatzeari eskaini zaio (2023ko otsailean gauzatuko zena). Euskararen estrategia digitalari eskainiko zaio Foroaren edizio hau.

GIPUZKOA
BERDINAGO
2016-2020

Gipuzkoako
entitateak hizkuntza
berdintasunerantz



➔ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoa-berdinago>

Sustatzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.20

Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen lan-ildoak da.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola

Aholkularia | Pello Jauregi

Bulegoko langilea | Maialen Iñarra

Garapen Taldea |

- Nerea Ibarluzea (Ahize-AEK)
- Nerea Mandiola (Artez)
- Maite Unzalu (Elhuyar)
- Jone Urkizu (Emun)
- Malen Eugi eta Saioa Leoz (Euskarabidea)
- Sonia Isasi (EJ-HPS)
- Nekane Jauregi (GFA-HBZ)

Aholkulari - lankideak |

Ane Ortega, Esti Amorrortu, Jone Miren Hernandez (Equiling)

Aldahitz ikerketa

Hamabi urteko jardunaren ostean, 2022koa aldaketa edo egokitze urtea izan da Aldahitz Ikerketan, batez ere proiektuaren hasieratik zuzendari emankor izan den Pello Jauregirekiko (EHU) harremana aldatu delako. Gidaritza hori berritzea izan da urteko lan nagusietako bat, eta lan horri esker, lankidetzak abiatu dugu Equiling ikerketa taldearekin.

Metodologiaren garapen aldetik, *Uler-saioak metodologiaren 2021-2022 esperimentzuen analisia* egin dira eta metodologia horren jarraipenerako irizpideak landu.

Azkenik, zabalkunde eta ideia-trukeari dagokionez, Aldahitz ikerketa il-doan ateratzen ari garen ondorio eta irakaspenen berri eman dugu jardunaldi eta ekitaldi ezberdinetan.



➔ www.sozioinguintika.eus/aldahitz

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



3.21

Gipuzkoa osoa "arigune" izatera iristeko egin beharreko bidea irudikatzeko eta lantzeko proiektua.

Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)

Bulegoko langileak | Imanol Larrea, Pablo Suberbiola

Partaideak |

Garapen taldea |

- Mertxe Mugika eta Aize Otaño (AEK)
- Jasone Mendizabal eta Arrate Illaro (Euskaltzaleen Topagunea)
- Mikel Irizar (Badalab)
- Joxean Amundarain eta Iñaki Arruti (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Talde teknikoa |

Jone Urkizu eta Amaia Balda (Emun)

Gipuzkoa Arigune

2020ko Abadia saria jasotzean, Pello Jauregik (EHU) irudikatu zuen ideia eta bota zuen galdera: "Irudika genezake Gipuzkoa osoa Arigune gisa? Noizko?"

Idea edo erronka horri tiraka, abian da gai horren inguruko lan-ildoak. 2021ean aurreproiektua idatzi ostean, 2022ko maiatzera arte hasierako ideia garatzeko lana egin da. "Gipuzkoa Arigune" ideiak helburu luke euskararen ulermen unibertsala eta hiztunen aktibazioa Gipuzkoan, eta proiektu honetan ahalegina egin da halako erronka zabal eta konplexu batera iristeko bidea irudikatu eta eztabaidatzeko.

Sustatzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.22

Hezkuntza-baliabide gisa erabil daitezkeen euskararen soziolinguistikaren eremuko askotariko materialen online datu-basea.

Bulegoko langilea | Asier Basurto

Koordinazio teknikoa | Izaro Arruti

Garapen taldea |

- Jon Sarasua eta Eneritz Garro (Mondragon Unibertsitatea)
- Helena Baraibar (Ikastolen Elkarte)

Implementazio informatikoa |

lametza Interaktiboa

Hezkuntza soziolinguistikorako materialen bilduma

Hezkuntza-baliabide gisa erabil daitezkeen euskararen soziolinguistikaren eremuko askotariko materialak web-atal batean eskaintzeko proiektua da. Soziolinguistika, munduko hizkuntzak, hizkuntza ekologia eta euskararen biziberritzearen inguruko eduki teorikoak eta ezagutza praktikokoak lantzeko materialen erreferentziak eta estekak formatuaren, modalitatearen eta gaien arabera sailkatuta aurkezten dira. Bildumak bilaketak egiteko aukera eskaintzen du. Proiektu honen jatorrian funtsezko ideia bat dago: bere burua eraldatu nahi badu, hizkuntza gutxituaren komunitateak ezagutza soziolinguistikora sarrera bermatu behar die bere kideei.

Proiektu honek sakabanatuta dauden baliabide guzti horien bilduma du oinarri. Izaro Arruti eta Sandra Prietoren Master Amaierako Lanerako osatutako bilduma eta honen azterketa.

Babesle-laguntzaileak:

- Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- Ikastolen Elkarte



3.23

Galesen soziolinguistika gaiak lantzeko sei asteko ikerketa egonaldia.

Bulegoko langilea | Imanol Larrea

Alan R King katedra

Etxepare Euskal Institutuak eta University of Wales Trinity Saint Davidek elkarlanean lehen aldiz egindako deialdia izan zen 2022koa. 6 asteko ikerketa egonaldian, beste hamaika ekitaldi eta harremanez gain, bi ekimen nagusi izan ziren. Batetik, Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilera handitzeko metodologiengatik inguruan egiten duen lana aurkezteko hitzaldi nagusia. Bestetik, galesera sustatzeko hizkuntza ohituretan eragiteko metodologiei buruzko mintegia.

Horiez gain, unibertsitatean hezkuntza arloko ikasle eta irakasleekin saioa egin zen, bi herrietako hezkuntza ereduak, hizkuntza-plangintzaren emaitzak eta Klusterraren proiektuak jorratuz, besteak beste.

Gainera, helduei galesa irakasteko zentroak bi saio antolatu zituen bere irakasleentzat helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzko informazioa aztertzeke eta euskarazko oinarritzko ezagutza batzuk eskuratzeko.

Azkenik, Eleaniztasunari buruzko masterrean ere saio bat egin zen euskararen biziberritze prozesua aztertzeke eta Soziolinguistika Klusterraren lana aurkezteke.



Sustatzaileak:

- Etxepare Euskal Institutua
- University of Wales Trinity Saint David



3.24

Euskararen soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko eta ezagutza partekatzeko urteroko zita.

Bulegoko langileak | Asier Basurto eta Isabel Godinez
Partaidea | Emun



Euskal Soziolinguistika Jardunaldia

Euskal Soziolinguistika Jardunaldien hamalagarren edizioa ekainaren 22an izan zen. 2021eko Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren emaitzak oinarri hartuta, euskararen biziberritzearen ikuspegitik interpretazioak egiteko eta elkar trukatzeko aukera eskaini zuen. Kaleko erabilerarekin lotura izan dezaketen denetariko fenomenoaren gaineko ekarpenak bildu ziren eta aurrera begirako erronka nagusien gainean hausnartu eta eztabaidatu zuten ikerlari, teknikari, irakasle eta bestelako parte hartzaileek. Bilboko Bizkaia Aretoa egin zen jardunaldia eta streaming bidez ere parte hartu zuten zenbaitek.

- 09:00 Antolatzaileen agurra
- 09:15 Hizkuntzen erabileraren kale neurketaren emaitza osagarriak Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterra)
- 10:15 Kaleen eta espazio publikoaren bilakaera azken hamarkadatan Koldo Telleria, Oihana Santolaria eta Irati Otamendi (EHU)
- 11:00 Atsedenaldia
- 11:30 Euskararen erabilerarako baldintzak ezagutzen
 - a) Hizkuntzen bizi-ondarreak eragiten duten mundu mailako joera nagusiak - Ane Ortega (MHO Unesco Katedra)
 - b) Euskal Herriko bilakaera demografikoaren deskribapen orokorra - Julen Landa (GISLAN)
 - c) Euskalerritarren profil linguistikoa eta hizkuntza gaitasunen bilakaera - Iñaki Lurrebaso (EHU)
- 12:30 Kaleko erabilera datuak elkarrekin ulertzen eta interpretatzen (Tailerra)
- 14:00 Bazkalordua
- 15:00 Erabilerarako baldintzak eta erronkak: norbanakoak eta ingurune hurbila Mahai-ingurua Eneko Gorri (Erabil Kolektiboa) eta Maialen Iñarra (Soziolinguistika Klusterra)
- 16:00 Erabilerarako baldintzak eta erronkak: gizarte maila Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) Kike Amonarriz (Euskaltzaleen Topagunea) Xabier Arauzo (Bizkaiko Foru Aldundia)
- 17:00 Egunaren errepassoa eta itxiera

➤ <https://soziolinguistika.eus/jardunaldia>

Babesle-laguntzaileak:

- Bilboko Udala
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Eusko Jauriaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

3.25

Euskal soziolinguistikaren eremuko hausnarketa eta ikerketa lanen lehiaketa.

Bulegoko langilea | Asier

Basurto

Partaideak |

- EHU/UPV
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza



Txillardegí-Hausnartu soziolinguistika sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHU/UPVrekin elkarlana abiatzarekin batera, Txillardegí-Hausnartu Sariak izatera pasa ziren.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlariena lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

2022an hiru lan hauek izan dira sarituak:

- > **Lehen saria:** *Elkarrekintzaren eragina euskararen erabileran: lehen pistak Ipar Euskal Herriko ikastoletan.* Xan Aire
- > **Bigarren saria, ex aequo:**
 - *Gizarte elebidun bateko gazteen hizkuntza hautaketan eragiten duten faktoreen azterketa.* Iñaki Beristain Agirre
 - *Tolosaldeko ikasle eusleak.* Imanol Artola Arretxe

Sarien Banaketa Ekitaldia 2022ko abenduaren 15ean izan zen Bilboko Bizkaia Aretoan. Bideoetan jasota geratu dira bertan saridunek egindako lanen aurkezpenak. Horrez gain, Bat aldizkariaren 2023ko zenbaki batean argitaratuko dira saritutako hiru lanak eta lehiaketan parte hartu duten beste zenbait.



➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/zabalpena/txillardegí-hausnartu-sariak/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

3.26

Euskararen soziolinguistikari buruz euskaraz argitaratzen den aldizkari zientifikoa, akademikoa eta dibulgatzailea.

Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna

Koordinatzailea | Belen Urranga

Bulegoko langileak | Beñat

Garaio eta Isabel Godinez

Argitalpen Batzordea |

- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)
- Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHU)
- Jone Miren Hernandez (UPV-EHU)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Inma Muñoa (Ikastolen Elkarte)
- Beñat Garaio
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- Eneko Gorri (Plazara Kooperatiba)

Bat soziolinguistika aldizkaria

1990. urtean abiatu zenetik, BAT-ek artikulu akademikoak eta zientifikoak argitaratzen ditu; ikerketan oinarriturikoak, baita ikerketa-aplikazioko ereduak ere. Gainera, Euskal Herriko esperientzietako dibulgazioko lanak ere biltzen dira, baita unibertsitate-mailako ikastaro, jardunaldi edo topaketetako hitzaldietan oinarritutakoak ere.

Gai monografiko bati eskaintzen zaio zenbaki bakoitza. Nolanahi ere, zenbakia osatuz, beste gairen bati loturiko artikulu batek tokia izan dezake.

Honako hauek argitaratu dira 2022. urtean:

- BAT 122-123: Txillardegi-Hausnartu sariak (2021)
- BAT 124: Euskara esparru sozioekonomikoan
- BAT 125: Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

2020. urtetik aurrera, HABE liburutegiarekin lankidetzan, nazioarteko soziolinguistika argitalpenen erresinak txertatzen ditu BAT Aldizkariak "Soziolinguistikaren munduko leihoa" atalean.



➔ <https://bat.soziolinguistika.eus/>

Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Bertintasunerako Zuzendaritza

3.27

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.

Soziolinguistika Albistaria

2016. urtean, zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko prozesua eta tresnak definitu zituen Soziolinguistika Klusterrak. Sistema horren bidez, soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jardura zientifikoak, akademikoak eta sozialak jarraitzen dira. Egun, 100 iturri baino gehiago baliatzen dira intereseko informazioa bilzteko.

Jasotako informazio hori Soziolinguistika albistariaren bidez helarazten diogu euskal soziolinguistika komunitateari. Funtsean, hitzorduez, irakur-gaiez, eragileez edo ideiez elikatzen dugu Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduen sarea. Gaur egun, 1000 harpidedunetik gora ditu albistariak.

Hain zuzen, bi astean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 15-20 albisteko bilduma zabaltzen da posta elektronikoz, sare sozialen bidez eta webguneko atalean. Dagoeneko 134 zenbaki hedatu dira.

Bulegoko langileak | Beñat Garaio eta Asier Basurto
Partaidea | Leire Muxika (EMUN)



➔ <http://soziolinguistika.eus/albistaria>

Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

4

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Elkarlana oinarri


4.1 AHOLKULARITZAK ETA BESTE IKERKETETAN EKARPENAK

- Larraina elkarteak Zumaiako Udalaren laguntzaz egindako *Zumaiako haurren euskarazko sozializazioa* proiektuan aholkularitza lana egin zuten Belen Uranga eta Maialen Iñarrak. Emaitzen aurkezpena herriko ikastetxeetan, udaletxean eta aurkezpen publikoak.
- Euskaltzaleen Topagunearen *Ahalduntze Eskola* proiektuan aholkularitza egin zuen Pablo Suberbiolak Aldahitz metodologiak oinarri hartuta.
- Jorris Kingma Fryske Akademy eta Mercator sareko ikertzailearen elkarriketa euskararen azpiegiturari buruz, Europako hizkuntza gutxituen azterketa konparatiboaren baitan.
- Euskaltzaindiaren *Euskararen Gogoetagunea* proiektuaren barnean Olatz Altunak eta Jon Aizpuruak "Euskararen egoera soziolinguistikoa. Ikuspegi orokorra" txostena osatu zuten.

4.2 KIDETZAK ETA PARTE HARTZEAK

- 2022/11/5. Donostia – Euskalgintzaren Kontseiluak sustatutako *Batuz Aldatu* dinamikaren sinatzaileen lehen biltzarrean parte hartzea.
- *Badalab* hizkuntza berrikuntza laborategiaren jardura:
 - Soziolinguistika Klusterra Gobernu Batzordearen kide da eta gune horretan parte hartzen du.
 - *Gipuzkoa Taldean* deialdian hautatutako proiektuen bidelaguntza lana.

- 2022/02/15. Villasante ikertegia, Donostia - Gipuzkoako hizkuntza aniztasunaren gaineko aurkezpena egin zuen Belen Urangak hainbat berrikuntza proiekturen koordinazioan diharduten pertsona eta eragileei.
- *NPLD* Europako Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarearen jardura:
 - 2022/05/18, Brusela – Batzar Orokorrean aparte hartu zuen Imanol Larreak eta Soziolinguistika Klusterra Zuzendaritza Batzordearen kide izendatu zuten.
 - 2022/10/7. Cardiff - *Safe spaces to encourage language use* konferentzian parte hartu zuen Imanol Larreak, Euskara Kirolkide proiektuaren gaineko "Creating safe spaces for use of the Basque language through sport" aurkezpenarekin.
- Garabide Elkartearen Kontseilu Nagusiaren kide da Soziolinguistika Klusterra
- Belen Urangak Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko *Migrazioaren eta asiloaren euskal foroaren* baitan, "Euskara eta hizkuntza aniztasuna" batzordean parte hartzen du.
- Belen Uranga Euskaltzaindiaren *Jagon Saileko Sustapen batzordean* parte hartzen du.
- Olatz Bengoetxeak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Unibertsitate Sailaren *Hizkuntzen Foroa* gogoeta taldean parte hartzen du.



4.3

AURKEZPENAK, HITZALDIAK, FORMAKUNTZAK ETA SAIO PUBLIKOAK

2022/02/18-20 La Cristalera, Madril - Equiling ikerketa proiektuaren *Kontzientzia soziolinguistikotik agentzia kolektibora* mintegian parte hartu zuen Maialen Iñarrak.

2022/02/20-03/02 Donostia eta Andoain - Kataluniako *Plataforma Per La Llenguako* bost kidek Soziolinguistika Klusterrarekin hainbat lan-saio egin zituzten behaketa bidez hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko metodologian sakontzeko formakuntza gisa, Klusterraren beraren proiektuen eta lan-moldeen inguruan eta Plataformak beraren jardunaren inguruan. Klusterraz gain, Euskalgintzaren Kontseiluarekin, Emun Aholkularitzarekin, Euskaltzaleen Topaguneekin eta Urtxintxa Heziketa Eskolaren ere bildu ziren Plataformako kideak.

2022/03/05 Donostia - AEKko XI. Didaktika Topaketatan parte hartu zuen Pello Jauregik (EHU) Aldahitz proiektuaren baitan landutako *Uler-saioak* metodologiaren nondik norako nagusiak aurkeztuz.

2022/05/13 Lasarte Oria - *Udaltop* topaketatan hitzaldia eman zuen Pablo Suberbiolak: "Eskolaz kanpo, zer eta nola egin



behar dugu hobeto, hiztun hobek sortzeko?"

2022/05/31

San Telmo Museoa, Donostia - Jakiundek antolatuta *Pandemiak erakutsi diguna* solasaldian parte hartu zuen Asier Basurtok, Iñaki Martinez de Luna eta Nagore Ipiñarekin batera, Nekane Balluerkak moderatuta.

2022/06/10

Equiling Euskadiren bileran Aldahitz metodologiaren gaineko aurkezpena egin zuen Pablo Suberbiolak.

2022/07/09

Donostia - *Eskolan euskara ardatz: ertzak aztertzen* EHUren uda ikastaroan parte hartu zuten Mariaren Lagundia ikastolako eta Lantziego ikastolako ordezkariak, Soziolinguistika Klusterrarekin batera egin duten ibilbidearen gaineko aurkezpen banarekin.

2022/07/13-16

Gante - Mundu mailako soziolinguistika akademikoaren topaketa handiena den *Sociolinguistics symposium*-ean parte hartu zuen Maialen Iñarrak. "Using a minorized language at school: the case of Basque (2011-2019)" aurkezpena eta "Measurement of linguistic practices in the street through observation: Basque Country's case (1989-2021)" posterrarekin parte hartu zuen.

2022/09/09

Montreal - Etxepare Institutuak Montrealgo McGill Unibertsitatearekin elkarlanean sortu duen Elbira Zipitria katedraren irekiera ekitaldian parte hartu zuen Pablo Suberbiolak "Euskaraldia: an attempt to change the social norms for the use of languages" hitzaldia eginez.

2022/09/13-16

Girona eta Perpinyà, Katalunia - *Revitalització De Llengües Indígenes I Minoritzades* nazioarteko kongresuan parte hartu zuten Olatz Altunak eta Paula Laitak. "Metodologia de medicion del uso de las lenguas: tres deca-

das de experiencia", "¿Cunto euskera se habla en las calles del País Vasco?" eta "Indigenous language revitalization in British Columbia: Yunesit'in Community Strategies for Nenqayni Ch'ih" komunikazioak aurkeztu zituzten.

2022/10/04-06

Andoain - IRALEko lau taldetako ikastarien bisita Soziolinguistika Klusterraren bulegora. Ikergunearen antolaketa eta lanaren gaineko aurkezpena eta ahozko hizkuntza gaitasunarekin lotutako proiektuen gaineko aurkezpena egin zuten Olatz Bengoetxea eta Asier Basurtok.

2022/10/28

Cardiff - *ELEN* Europako Hizkuntza Berdintasun Sarearen Batzar Orokorrean parte hartu zuen Imanol Larreak.

2022/11/07

Aretxabaleta - Mondragon Korporazioaren *Euskara Foroan* Aldahitz proiektuan sorturiko metodologiaren gainekoa aurkezpena egin zuten Pablo Suberbiolak eta Amaia Baldak (Emun).

2022/11/12

Gasteiz - Etxepare institutuak atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasten jardungo duten irakurleentzat antolatutako prestakuntza ikastaroan formakuntza saioa.

• Nafarroako udaletako eta Euskarabideako euskara teknikariekin lan-saioak


- 2022/10/21. Iruñea - Hizkuntzen Erabilaren Kale Neurketaren Euskal Herriko eta Nafarroako emaitzen gaineko saioa gidatu zuten Olatz Altuna eta Asier Basurtok.

- 2022/12/15. Iruñea - Tokian tokiko hizkuntza aktibazioari buruzkoa gidatu zuten Maialen Iñarra eta Imanol Larreak.



BALANTZE EKONOMIKOAREN LABURPENA


Bazkide, lankide, finantzatzaile eta erabiltzaileekin gardentasunez jokatzeko dugun konpromisoari erantzunez 2022ko jarduera ekonomikoa laburtzen duten datu batzuk eskaintzen dira jarraian.



- Pertsonal Gastua
- Gastu Orokorrak
- Proiektutetako Kanpo Zerbitzuak

GASTUAK

780.140 €



- Fakturazioa
- Eusko Jaurlaritza (HPS eta Hezkuntza Saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- Bazkideak eta harpidetzak
- Erakunde pribatuak

SARRERAK

795.678 €



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2022

